

Botoen ostean, akordioak

PSE-EE izan da bozkatuena baina zinegotzi bat galdu du; EH Bilduk bosgarrena lortu du, eta, PPK, ordezkariak berreskuratu / 2-3

TXINTXARRI

Jarraitzeko indarra eman dio

Sara Arruti Benito herritarra saritu du Ikergazte euskarazko ikertzaile gazteen kongresuak; horren berri eman dio TXINTXARRI-ri / 6

Michelingo Enpresa Batordeak greba eta mobilizazioak iragarri ditu datozen egunetarako / 4

Hilaren 5ean hasiko da Kukukaren 21. Antzerki eta Dantza Astea, desfile koloretsu batekin / 5

Denboraldi amaierako festarekin biribilduko ditu Ostadar SKTk bere 40. urteurreneko ospakizunak / 7

'Traganarru' diskoa argitaratu berritan kontzertua emango du Rukula taldeak, Zabaletako jaietan / 8

Gipuzkoako txapelketa irabazi dute Ostadar Boleibola saileko jubenilek, bigarren urtez jarraian / 10

Domina uzta ederra erdietsi dute Buruntzaldea IKTKo igerilariek; marka ugari ere ondu dituzte / 11



txintxarri

Sanpedroetako zenbaki bereziak ekainaren 23an eta uztailaren 7an

Deskontu bereziak herrikoentzat!

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66



Duela lau urte baino boto paper gutxiago zenbatu behar izan dituzte hauteslekuetako mahaikideek. TXINTXARRI

Alkaterik ez akordiorik gabe

Alderdi sozialista izan da bozkatuena, ordezkari bat galdu arren: zazpi izango ditu. Bigarren indarrak, EH Bilduk, eragiteko gaitasun gehiago izango du, bosgarren aulkia lortuta. EAJK hiru zinegotzi izango ditu; Elkarrekin Podemosek eta PPK, bana. Negoziazioak hasi dituzte

Txintxarri

Aulki jokorako prest izan zen maiatzaren 19an argitaratu genuen aldizkariaren goiburua: amaitu berri den legealdian ordezkariak izan duten lau alderdietako alkategaiak azaltzen dira argazkian, bakoitza eserleku batean. Erdian, bat hutsik, eta alkatearen makila aurrean, nork hartuko zain. Udal hauteskundeak egin berri dituzte eta herritarrek erabaki dute ez direla lau jokalaria izango, bost baizik, PPK ordezkariak izango baitu 2023-2027 legealdian, 2019an aulki gabe geratu ostean. Gainerako udal taldeak berberak izango dira. Hona hemen zerrenda, bozetan jaso duten babesaren arabera ordenatuta: PSE-EE, EH Bildu, EAJ eta Elkarrekin Podemos.

Alderdi bozkatuena izanagatik (bigarrenak baino ia mila boto gehiago), PSE-EEK indarra galdu du, 2019an baino 511 bozka

gutxiago jasota, 3.370. Duela lau urteko aulki jokoan zortzi partaiderekin aritu ziren sozialistak; aurtengoan, zazpirekin konformatu beharko dute. Emaizak agintean egon den hiru urteei babesa izan direla uste du Agustin Valdivia alkategaiak, eta horretan eragin dutela pandemiak eta pairatu beharreko guztiak, politikak bizi duen desgastea, estatu mailan egindako "kanpaina zikina"... "Hala ere, irabazi dugu, eta benetan eskerrak eman herritarrei beraien konfiantzagatik. Lan egingo dugu gobernuan osatu eta programan ditugun proposamenak

BOZKATZERA DEITUTA ZEUDEN HAMAR HERRITARRETIK LAU PASATXO (%42,64) ABSTENITU DIRA

gauzatzeko", laburbildu du. Gehiengo absolutua urrutiago izanik (bederatzi aulki), akordioak beharko dituzte Valdiviak alkate izaten jarrai dezan. Azken bi legealdietan EAJrekin jarri dira ados, eta litekeena da formula bera erabiltzea oraingoan ere.

EH Bildu izan da bigarren indarra eta udalean eragiteko gaitasun gehiago izango du, 2019ko arantza atera eta bosgarren zinegotzia erdietsita. Goranzko joera mantentzen dute subiranistek, hautetsontzietan babes gehiago jasota: 2.429 boto. Emaizta horiek hauspotuta, Esti Garmendia alkategaiak adierazi du maite duten Lasarte-Oriaren alde jarraituko dutela lanean eta herriarentzat "onenak" diren akordioak egiten saiatuko dela. "Tendentzia aldaketa baten isla da hau, gorantz goaz". Gogotik ospatu zuten lortutakoa Sagardotegi kaleko lokalean.

Balitzko itun eta akordio horietan EAJK izango du giltza, bozetan lortu dituen hiru zinegotziekin. 208 boto galdu arren, 2019ko emaitzak errepikatu dituzte jeltzaleek eta "pozik" daude horregatik, Jon Antxordoki alkategaiak nabarmendu duenez. Ikusteke dago zer jarrera izango duten negoziatzerakoan: PSE-EErekin ados jarriko ote diren hirugarren agintaldiz jarraian, edo gobernu alternatibo bat babestuko duten beste alderdi batzuekin ituna eginda. Aukera bakar bat ere ez du baztertu zerrendaburuak.

"Ez dugu jendearen ilusioa pizten asmatu", adierazi dio Elkarrekin Podemos alderdiko alkategai Miguel Angel Tolosak aldizkari honi. Agerikoa izan da hori, boto ugari (582 lortu ditu aurten, 2019an baino 388 gutxiago) eta ordezkari bat galdu dituelako. Emaizta errepikatu izan balute, "PSE-EEren eta EAJren arteko pintza haustea" izango lukete helburu. Zinegotzi bakarrarekin zailagoa izango bada ere, lan egiteko gogoz dago.

Duela lau urte baino ia ehun boza gehiagorekin, udalbatzarrera itzuliko da PP, zinegotzi batekin; aulki jokoko bosgarren eta azken jokalaria izango da. Eserleku bat lortu izana baloratzeko eskatze aldera, Manuel Palaciorekin hitz egiten saiatu da TXINTXARRI, baina oraindik ez du aukerarik izan.

Abstentzioak, gora

Bozkatzera deituta zeuden 14.686 lasarteoriatarren %42,64 abstenitu egin dira, hau da, hamar pertsonatik lau pasatxo. Duela lau urteko datuekin alderatuta, bost puntu altuagoa izan da datu hori. Gipuzkoako joera orokorraren tankera (zazpi puntu altuagoa izan da abstentzioa, %40koa) izan du gure herrikoak. 102 boto baliogabeak izan dira (%1,21)

eta 128, zuriak (%1,52). Bestela esanda, 8.424 herritarrek eman dute boza hauteskunde hauean, eta horietatik 8.194 jaso dituzte hautagai zerrendak aurkeztu dituzten bost alderdiek.

Hauteskunde orokorrak uztailean

Politikari lasarteoriatarrek ez dira gure herriko udal korporazioan soilik egongo, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere bai. EH Bilduk lurralde horretan atera dituen 22 ordezkarietako bat (120.578 boto eta 2019an baino bost eserleku gehiago, inoizko emaitzarik onenak) izango da Jon Martin, Donostialdeko barrutiko zerrendako seigarren kidea, amaitu berri den legealdian Lasarte-Oriako udal taldearen bozeramaile izan dena. "Pozik eta ilusioz" hartuko du ardura hori, EH Bilduren lokalean adierazi zuenez. Horrez gain, azpimarratu zuen koalizio subiranistak gure herrian erdietsitako emaitzak azken lau urteetan egindako lanaren adierazgarri izan direla. "Azterketa moduko bat izan dira bozak, eta gainditu ditugu".

PSE-EEK zazpi eserleku izango ditu Batzar Nagusietan, eta horietako batean Jesus Zaballos herriko alkate ohia eseriko da. Eskrutinioa %100ekoa izan baino zertxobait lehenago barruan zegoen baita ere Iñaki Mugica, Donostialdeko barrutiko zerrendako laugarren hautagaia, baina kanpoan geratu zen azkenean. Alderdi sozialistak duela lau urte baino bi aulki gutxiago erdietsi ditu.


Bestalde, Espainiako presidente Pedro Sanchezek jakinarazi du uztailean 23an izango direla hauteskunde orokorrak, igandez. Ikusteke dago iragarpen horrek eragingo duen udal eta lurralde historikoetako akordioetan. Espainiako Gorteetarako bozetarako kanpaina uztailean 7an hasiko da.

Udal hauteskundeak, zenbakitan

	2023	2019
Errolda	14.686	14.265
Boto emaileak	8.424	9.324
Abstentzioa	%42,64	%37,33
Baliogabeak	102 (%1,21)	59 (%0,63)
Zuriak	128 (%1,52)	84 (%0,9)

UDAL KORPORAZIOAREN OSAERA

 AGUSTIN VALDIVIA PSE-EE	 NURIA FERNANDEZ PSE-EE	 DAVID MATEOS PSE-EE	 NAGORE DURAN PSE-EE																								
 IÑIGO ZABALETA PSE-EE	 LOURDES ACEVEDO PSE-EE	 TXUS ALONSO PSE-EE	 ESTI GARMENDIA EH BILDU																								
 IXUE LOINAZ EH BILDU	 ASIER GOROSTEGI EH BILDU	 OIHAN AGIRRETXE EH BILDU	 SANDRA BARKAITZEGI EH BILDU																								
 JON ANT XORDOI EAJ	 ANNE UGARTEBURU EAJ	 GOIZALDE PILDAIN EAJ	 MIGUEL ANGEL TOLOSA EP																								
 MANUEL PALACIO PP	<table border="1"> <thead> <tr> <th>Alderdia</th> <th>2023</th> <th>2019</th> <th></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>● PSE-EE</td> <td>7</td> <td>8</td> <td>↓ 1</td> </tr> <tr> <td>● EH Bildu</td> <td>5</td> <td>4</td> <td>↑ 1</td> </tr> <tr> <td>● EAJ</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>0</td> </tr> <tr> <td>● Elkarrekin Podemos</td> <td>1</td> <td>2</td> <td>↓ 1</td> </tr> <tr> <td>● PP</td> <td>1</td> <td>0</td> <td>↑ 1</td> </tr> </tbody> </table>			Alderdia	2023	2019		● PSE-EE	7	8	↓ 1	● EH Bildu	5	4	↑ 1	● EAJ	3	3	0	● Elkarrekin Podemos	1	2	↓ 1	● PP	1	0	↑ 1
Alderdia	2023	2019																									
● PSE-EE	7	8	↓ 1																								
● EH Bildu	5	4	↑ 1																								
● EAJ	3	3	0																								
● Elkarrekin Podemos	1	2	↓ 1																								
● PP	1	0	↑ 1																								



Alderdi politikoek aurtengo bozetan jasotako botoak aurreko hauteskundeetakoekin alderatu ditu TXINTXARRI-K. TXINTXARRI



NEURE KABUZ

JULEN BASTERRA

Gogoratu beharra

Gure arbasoak naturarekin bat bizi ziren garaiak aspaldiko kontu zaharrak dira. Gutariko gutxik sinesten dugu garai harmoniatsu haiek existitu zirela. Ezinezkoa hura gogoratzea. Izan ere, bereizketa gailendu zela garbi dago, jatorrizko batasun hura naturaren magalean solidifikatu ziren egitura eta azpiegiturretan zatikatu zelarik.

Jatorrian harmonia zegoela sinesten dugunon arrastorik bada bederen gehiago zabal baten buruan. Eta hau jendeak musikari dion estimu handian berresten da. Badirudi, artea, errituak eta konkretuki musika bezalako gizakiaren jardunak hari honen transmisioarekin jarraitzea ahalbidetu duela. Izan ere, musikaren hariak gogorarazten digu, nolabait, naturaren magalean solidifikatu den orden sozial honen ginetik (edo honen azpian) badela gizaki guztiak berdintzen eta naturari konektatzen gaituen harmonia bat. Zerbait bat.

Dena den, Zerbait hau ahaztu egiten dugun zerbait da, eta naturarekin bat egiten gaituen hori arriskuan ipintzen dugu egunero. Egunero egon behar dugu adi, bereizketaren indarra zein bere trikimailuak egunero jaikitzen direlako gu eta natura bereizteko asmoz. Honela, jatorrizko harmonia ahuldu egiten da eta norgehiagokak irabazten du. Batzuen interesak beste batzuen interesen aurka lerrotzen dira. Irabazleak eta galtzaileak...

Bueno, etor nadin gaurkora, hauteskundeak izan berri diren astelehen post elektoral honetara. Parte hartzea Gipuzkoan ez da %50era iritsi (%48,51). Badirudi ez dugula solidifikatu den orden sozial honetan sinesten, ez parte hartzea alderdi bat balitz hark gobernatuko bailuke Gipuzkoa. Dena den, Lasarte-Orian herria antolatzeke udal sisteman sinesten dugula ematen du: %57,36 izan gara eta bozka eman dugunak.

Bereizketa, harmonia, hauteskundeak...Nola bateratzen da hau guztia? Nola uztartzen da bereizketa oinarri duen alderdien sistema politikoa jatorrizko harmonian sinesten dugun ni bezalako musikarion eta sortzaileon jardunarekin? Bi bide okurrizten zaizkit gutxienez:

Bat: ez parte hartzea eta sistema osoa ukatzea harmoniaren eta bizitzaren kontra doan sistema bereizle bat dela argudiatuz. Hau da, nire ustez, Gipuzkoak egin duen hautu nagusia. Bozkarik ez ematearena, hain zuzen. Errespetagarria, baina, alternatibarik eraiki ezean postura infantila izan daitekeena.

Bi: parte hartzea. Solidifikatu den alderdien sistema kontingente hau probisionalki onartuz. Jakinik gure eguneroko jarduna alderdien sistema politiko honen bitartez arautua eta legislatua dagoela. Eta arau eta lege hauek gure interesen kontra egon daitezkeenez, bizitzara eta harmoniara gerturatzen gaituzten arau eta legeak egingo dituzten agintariak aukeratuz. Alegia, botoa emanez. Hau izan da nire hautua, musika egiten jarraitzearekin batera.

Bukatzeke, azken bide bat aipatu nahiko nuke, herri honetako alkatea izan den Jesus Zabalosen hitzak berreskuratuz. Ez dakit gogoratuko zaretan, baina, 2017an memoriaren plaza izan genuen Okendon, Gogora ekimenaren barruan. Bertan nintzen ni entzule Hernani, Urnieta eta Lasarte-Oriako alkateak hitz egiten ari zirenean. Gure alkate ohiak tonu erlaxatu batean solasaldiaren amaieran esan zituen hitzak gogora ekartzeko beharra sentitu dut, guztiz bat egiten baitut gaur beraiekin: "Ojalá llegue un día en el que no existan los partidos políticos".

GORKA LASA | ASIER ODRIUZOLA | GORKA ALVAREZ
JEXUX ARTETXE | MAITANE REBE | **JULEN BASTERRA**
LIERNI REKONDO | AIZPEA AMAS

Grebak eta mobilizazioak egingo dituzte Michelinen

Enpresa batzordeak jakinarazi du ez dagoela ados Michelin Lasarteko zuzendaritzak egin dien azken proposamenarekin, hitzarmen kolektiboaren negoziazio betean. Ondorioz, lanuzteak eta protesta ekintzak aurrera eramango ditu, horien artean, lantegi osoko greba hilaren 5ean

Txintxarri

Michelin Lasarte lantegiko Enpresa Batzordeak iragarri du lau greba egun eta mobilizazio batzuk egingo dituela hilaren 2tik 5era. Hiru lanuzte sektorekakoak izango dira, eta laugarrena, fabrika osokoa. Eragile hori hitzarmen kolektiboa negoziatzen ari da enpresaren zuzendaritzarekin, eta ez dago gustura azken bileran jasotako proposamenarekin. "Horren aurrean, adierazi nahi dugu sindikatu bakar batek ere ez duela onartu; hala ere, enpresa batzordeak prestutasun osoa du negoziatzen jarraitzeko". Ildo beretik, "gogoeta" egiteko eskatu diote zuzendaritza taldeari, "gatazkari iskin egin ahal izateko".

Hau da komiteak eskatzen duena: inflazioarekin lotzea soldata guztiak; ordainsarien igoerak langileek galdutako erosahalmena estaltzea; eta Hileko Ordainketa Sistemari buruz plataformak jasotakoari eta, bereziki, gutxieneko diru sarrera soldatari erreparatzea.

Lehen greba eguna gaurkoa izango da, hilaren 2koa, sektore hauetan: MT/DF, CAP gehi Gainbegirale eta Galdarak C txandan. Lanuzte eta protesta ekintza guztiak alboko taulan jaso ditugu.



Enpresa batzordeak deitutako elkarretaratze baten artxiboko irudia. TXINTXARRI

Lanuzteak eta elkarretaratzeak

Greba deialdiak

- **Hilak 2:** MT/DF, CAP gehi Gainbegirale eta Galdarak C txandan.
- **Hilak 3:** 2R tailerra A txandan.
- **Hilak 4:** Gainbegirale eta Galdarak C txandan.
- **Hilak 5:** lanuztea lantoki osoan.

Mobilizazio deialdiak

- **Hilak 2 eta 3:** lantoki atarian elkarretaratzeak, txanda hasiera baino ordubete lehenago.
- **Hilak 5:** ekintza ugari aurrera eramango dituzte:
 - **05:00etan,** elkarretaratzea lantoki atarian.
 - **09:30ean,** auto karabana, lantegitik abiatuta.
 - **13:00-14:30,** elkarretaratzea, lantokian bertan.
 - **17:00etan,** manifestazioa Lasarte-Orian barrena.

Presoen lan eskubideez

Langileen Nazioarteko Egunarekin hasi zen maiatza eta data horretan aldarrikatutakoari helduta, espexke barruko lan baldintzei buruz aritu ziren Okendo plazako elkarretaratzean. Aurretik Etxerat eta Sareren idatzi bateratua partekatu zuten Elizatzen; salbuespen politikekin bukatzeko beharra berretsi zuten. Hilaren 30ean egingo dute hurrengo Azken Ostirala.



TXINTXARRI

Elikagai soberakinak kontzientziaz erabiltzen ikasteko

Udalak, Oriartekide Guraso Elkartearekin elkarlanean, Rexcatering proiektua jarri dute martxan

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak hitzarmena sinatu du Oriartekide Guraso-Elkartearekin, Rexcatering edo Zero Zabor proiektua ezartzeko. Jakinarazi du Gizarte Zerbitzuen departamentuaren bitartez egin dutela lankidetzak akordio hori, proiektuan parte hartu eta horri sostengua emateko, baita sortu berri diren ekimen solidario eta ekologikoetan laguntzeko ere.

Hitzarmen horrek urtean 9.000 €uroarainoko kopurua bermatzen du. Hiru urtekoa izango da, hau da, 2023-2025 urteetarako, eta proiektua abian jartzearen eta garatzearen gastuei aurre egitea ahalbidetuko du.

Instituzioak jakinarazi du lankidetzak horren bidez, jantoki handietako soberakinak herritarren artean berrerabil daitezela bultzatzea dela xedea. Izan ere, eta arduradunek nabarmendu dutenez, datuek erakusten dute tonaka janarik zaborrontzietan amaitzen duen gizarte batean bizi garela, eta hori Europar Batasunak proposatutako Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) kontra doala. Horregatik, herritarrek elikagaien soberakinak kontzienteki kontsumitzea nahi duelako hartu dute proiektua

martxan jartzearen erabakia. Horrela, Oriarte ikastetxeak, eta ikasleek beraiek eskola jantoki elikagai soberakinak kontsumorako behar dituenaren eskura jarriko dituzte, betiere segurtasuneko eta higieneko neurri guztiak bermatuta.

Sistemaren fase ezberdinak

Proiektuak zenbait fase dituela ohararazi du udalak. Lehenengoan sukaldetik irten ez den janaria ontziratzea da, eta tenperatura seguruan kontserbatzen da. Bigarrenetan, berriz, ontziak zigilatuta egiten dira termozigitzearen bidez, eta, horrela, ontzia erabat itxita geratzea lortzen da, behar elikagaia behar bezala kontserbatzeko. Hirugarrenak, aldiz, ikastetxeko ikasleak inplikatzeko erabiltzen ditu; etiketatzeaz arduratuko dira. Zigilu horiek janariari buruzko hainbat datu zehaztuko dituzte, besteak beste, elikagaiaren tipologia, kontsumitze data, trazabilitatea eta erabiltzeko jarraibideak. Azken fasean, ontzian hozkailu eramangarri batean sartzea prozesatzen da, ikasleek kalean dauden hozkailuetan sar ditzaten. Zero kostuko makina bat izango da kalean jarriko dutena; kokalekua zehazteke dute.

Dantza eskolan aritzeko matrikulazio epea zabalik

Datorren ikasturtean dantza eskolan aritu nahi dutenek, ekainaren 9ra arte egin beharko dute izen ematea

Txintxarri

Lasarte-Oriako dantza eskolak aurrematrikulazioa egiteko epealdia abian du; ekainaren 9ra arte izango dute interesdunek horretarako aukera, dantza eskolan.

Urteko ikastaroa da, eta urriaren 2an hasi eta ekainaren 19an amaituko dela iragarri dute arduradunek. Hainbat maila daude adinaren arabera, 6 urtetik hasi eta helduetaraino.

6 urteko gaztetxoek astelehen eta asteazkenetan joan ahal izango dute, 17:30etik 18:15era.

7 urtekoentzako saioak ere egun horietan izango dira, baina 18:15etik 19:00etara. 8 urtekoek zuzendutakoak, aldiz, astearte eta ostegunetan izango dira, 17:30etik 19:30era, eta 9 urtekoenak, berriz, egun horietan, baina 18:30etik 19:30era.

12 urtetik gorako erabiltzaileen eskaintza hau da: astelehen eta asteazkenetan, 19:00etatik 20:30era.

Prezioak ere jakinarazi dituzte. Erroldatuek 36,00 euro ordainduko dute hilero, eta, ez erroldatuek, aldiz, 61,00 euro.

Antzerki eta dantzaren bidez herria egiten

Herriko kaleak zeharkatuko dituen desfile koloretsu batekin hasiko da Kukukaren 21. Antzerki eta Dantza Astea, hilaren 5ean. Horren ostean, makina bat emanaldi egingo dituzte ikasleek kultur etxeko auditorioan, kurtsu hasieratik entseatutakoa erakusteko

Iñigo Gonzalez Sarobe

Hauteskunde kanpaina behin eta berriro entzun dugun hitzetako bat izan da *herrigintza*. Badakite horri buruz zerbait Kukuka antzerki eta dantza eskolako lagunek, izan ere, bi diziplina artistiko horiekin ere posible da herria egitea, Kontxu Iartza, Uxue Odriozola, Mirari Zorzano eta Irati Iglesias kide eta irakasleen ustez. Haiekin guztiekin elkartu da TXINTXARRI, hilaren 5ean hasiko den 21. Antzerki eta Dantza Asteaz gehiago jakiteko. Egitaraua eskuineko taulan eta aldizkari honetako *Agenda* atalean kontsulta dezakezue. Urtero lez, makina bat emanaldi antolatatu dituzte, ikastetxeko haurrentzat nahiz lasarteoriatarrentzat. Hilaren 10eko ikuskizunak ikusteko 3 euro ordaindu beharko dituzte ikus-entzuleek, eta gainerako egunetan, prezio "sinbolikoa": euro bat.

Kukukan ikastetik, eskola horretan irakastera. Odriozola, Zorzano eta Iglesiasek aurten ekin diote lan horri. Euskal Dantza, Antzerkia eta Sorkuntza erakusten dizkiete herriko gaztetxoei, hurrenez hurren. "Esperientzia gogorra baina polita" izaten ari direla esan dute. Ekain hasierako aste hori "kurtsoko garrantzitsuena" dela azpimarratu dute hiruek:



Euskal Dantza talde bat, iazko Zabaletako jaietan. TXINTXARRI

"Onena da, opari bat". Ikasleak zirenean ere hala bizitzen zutela aitortu dute. Beraien kargu dituzten umeak "urduri" ikusten dituztela esan dute, baina, aldi berean, irrikaz. Hori bai, badute ikasleren bat edo beste amaierako emanaldi horietan parte hartuko ez duena, lotsagatik batik bat. Argi dute ez dutela inor derrigortuko. Horren harira, gaztetxoei beldur eta errezelo horiek gainditzen laguntze aldera, gurasoen aurrean hiru hilean behin emanaldiak antolatzen dituztela ohartarazi dute, ikasleak

publikoaren aurrean aritzera ohitzen hasteko. "Entseguak bukatzean, pentsatzen dugu ikasleek askotan ez digutela kaso askorik egiten, baina saio horiek egitean, gurasoen edo ikaskideen aurrean, adibidez, kontzentratu eta irakatsitakoa ongi egiten dute; orduan konturatzen gara uste baino adiago egoten direla".

Gehiegizkoa izatea komenigarria ez bada ere, irakasleek adierazi dute normala eta beharrezkoa dela urduritasun puntu batekin igotzea eszenatokira, tximeletak sabelean dituztela, eta hori

transmititzen dietela ikasleei. Kukukan irakasle izateaz gain, oholtzan aritzen jarraitzen dute, eta onartu dute beraiek ere izaten dituztela nerbioak oraindik. "Horrelakorik ez sentitzea seinale txarra da; urduri egoteak laguntzen dizu momentuan egin beharrekoan kontzentratzen; lasaiegi egonez gero, orduan egiten dituzu akatsak".

Aurrematrikulatzeko aukera

Hastear dagoen antzerki eta dantza asteaz eta euren lanaz hitz egiteaz gain, Kukukako kideek jakinarazi dute hilaren 5ean zabalduko dutela datorren ikasturteko aurrematrikula egiteko epea. Ohiko aukerak ez ezik, berrikuntzaren bat edo beste egingo dute: Euskal Dantza eta gorputz espresioa uztartzeko saioak egingo dituzte LH 2 eta 3. mailako umeentzat, ordu eta erdikoak. "Hasiberria zarenean batez ere, zaila izaten da nola mugitu jakitea; gorputzaren adierazpena lantzeak asko lagunduko die, koreografiak lantzeko garaian batez ere", azpimarratu du Odriozolak.

Horrez gain, espero dute Dantza Garaikideko talde bat gutxienez ateratzea 2023-2024 ikasturtean. Iartza, Zorzano eta Iglesiasek adin guztietako herritarrak animatu dituzte modalitate horretan izena ematera: "Polita eta desberdina da, gauza berriak probatzeko aukera aparta. Gainera, belaunaldi desberdinetako pertsonen euren arteko harremana estutzen dute". Horri lotuta, Kukukaren lana balioan jarri dute, antzerkia eta dantza erakutsi bitartean herria egiten duelako: "Ikastetxeetako haur guztiak, herritarrak, haurrak, gurasoak...elkartzen ditugu urte osoan eta ekaineko aste berezian; gertutasuna sustatzen dugu".

Egitaraua

Ekainak 5, astelehena

- **19:00etan**, desfilea, kultur etxetik hasita.

Ekainak 6, asteartea

- **10:00/19:00**, antzerki emanaldiak kultur etxean: *Muxu magikoa*; *Mimoa*; *Kanixiuaua parkea* eta *Talentuen lehiaketa*.

Ekainak 7, asteazkena

- **10:00/19:00**, antzerki emanaldiak kultur etxean: *Ipuinak kontatuko ditugu*; *Perez patruila*; *Nola dastatu ilargia ipuinaren inguruan*; eta *Txin-txin herria*.

Ekainak 8, osteguna

- **10:00/19:00**, antzerki emanaldiak kultur etxean: *Clown olimpiadak*; *Eskeipruna*; eta *Nire ametsa*.

Ekainak 9, ostirala

- **10:00/13:00/19:00**, antzerki emanaldiak kultur etxean: *Txano&Gorritxu 3.0*; *Komun publikoa*; eta *Menua*.
- **10:00/13:00**, sorkuntza emanaldiak kultur etxean: LH3-5-6, DBH 1-2 eta DBH 3-4 taldeak ariko dira.

Ekainak 10, larunbata

- **19:00etan**, euskal dantza eta sorkuntza emanaldiak. Lehen modalitatean HH5, LH1 eta LH1-2 taldeak ariko dira; bigarrenean, LH3-5-6, DBH1-2, DBH 3-4, Gazteak-Baxiler eta Helduak.

Hilaren 28ko manifestazioa prestatzen hasi dira

Herritarrei antolaketa eta ekintza parte hartzeko deia luzatu die Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboak

Txintxarri

LGBTBIQ+ kolektiboa osatzen duten pertsonen borroka ikustarazteko xedez sortu zuten iaz Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboa, eta lehenengoz manifestazioa egin zuten Lasarte-Orian ekainaren

28an, "LGBTIQ+ harrotasuna" gisa ezagutzen den egunean.

Gogoratu dutenez, "Hemen gaude leloarekin agertu ginen iaz. Hemen gaudela bollerak, hemen gaudela marrikak, biak, transak, querrak... heteroarauaren disidentzia

guztiak". Horiek denak bistaratzeaz gain, euren jarrera ere azaldu zuten; alegia, egoteaz gain, nola dauden: "Zisheteropatriarkatuari, heteroarauari, transmaribollofobiari, patologizazioari eta askotariko biolentziei 'nahikoa da' esanez, 'hemen gauzak eta eman aurrean izango gaituzue'. Ohartarazi dute ez direla ez kikildu eta isilduko ere.

Manifestazioa prestatzeko bilera ireki bat egin berri dute Ttakunenea elkartean. Laster emango dute dinamikaren berri.



Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboko zenbait kide, agerraldian. TXINTXARRI

Maddi Zaldúa

Ikergazte euskarazko ikertzaile gazteen kongresuaren bosgarren aldiaren sari banaketa egin dute, berriki, Donostian. Bost jakintza alorretako komunikazio onenak saritu dituzte, eta horien artean, Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea atalean, lasarteoriatar bat izan da sariduna: Sara Arruti Benito. Ez da, ordea, sail horretara bere lana aurkeztu duen herritar bakarra izan; Maider Galardi Fernandez de Agirrek ere parte hartu du.

Enpresen administrazio zuzendaritza eta zuzenbidea gradu bikoitza ikasi zuen Arrutik, eta Giza eskubideak eta Botere publikoak masterra egin zuen gero. Hori amaituta, bigarren bat ere bai: Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun masterra: Berdintasun eragileak. Orain, doktoretza egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean; Zuzenbide Prozesaleko doktoregaia da. Ikerketa lanaren bigarren urtea du, eta erabat murgilduta dago lan horretan. *Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen Botere Judizial baterantz* izena du Ikergazte kongresuan aurkeztu duen komunikazio lan sarituak, eta hain zuzen ere, horren berri eman dio TXINTXARRI aldizkariari; kongresuan bizitakoez ere hitz egin du.

Nabarmendu du EHU "globalizazio neoliberalen txertatutako" erakundea dela, "eredu indibidualista eta lehiakorren" oinarritzen dela, eta hori hala izanik, Ikergazte "aukera paregabea" iruditu zaiola "beste unibertsitate eredu bat" sortzea posible dela egiaztatzeko; hain zuzen ere, "ezagutza kolektibo, ikuskera kritiko eta diziplinartekotasuna ardatz eta jomuga dituen".

Gaineratu du kongresua "topaleku ezin hobea" dela bi helburutarako: "Alde batetik, ikertzaileok jasaten dugun prekaritate edo itolarriari aurre egiteko arnagune bat da, eta, bestetik, ikerkuntzan euskaraz sustatzeko ekimen ona da". Saria irabazteak, berriz, egiten ari den lanarekin aurrera jarraitzeko "indarra eta motibazioa" eman dizkiola kontatu du. 300 euro, aldizkari zientifiko batean harpidetzeko, eta horietako batean idazteko aukera lortu ditu garaile izateagatik.

Prekarietatea eta ondorioak

Hari horri tiraka, argitu du zein baldintza kaskarretan pasa behar dituzten ikertzaileek, doktore tesiak irauten duen



Sara Arruti Benito ikertzaile gazte lasarteoriatarra, garaitza aitortu dion diploma eskuetan duela. TXINTXARRI

Genero ikuspegia oinarri duen Botere Judizial baten alde

EHUko Zuzenbide Prozesaleko doktoregaia da Sara Arruti Benito herritarra. 'Genero ikuspegia aintzat hartzen duen Botere Judizial baterantz: bere integrazioa antolakuntza judizial eta jurisdikzio funtzioan' tesia lantzen ari da, eta Ikergazte kongresuan saria jaso du

hiruzpalau urteetan: "1.000 euroko ordainsari bat jasotzen dugu hilero. Hau da gure egunerokoa, gure lana, eta hil amaieran diru sarrera handixeago bat izateko ez dugu beste lan batekin uztartzeko aukerarik. Orduak eta orduak pasatzen ditut ikertzen, liburuak dira nire lagunak", nabarmendu du. Horri jarraiki, kontatu du bizi duten egoera horrek buru osasunean duen eragina: "Nire sailean ikerketan aritu diren

askok depresioa izan dute, eta nik ez dut horrela amaitu nahi".

Ikerketa lanaren gako batzuk

Esan bezala, *Genero ikuspegia aintzat hartzen duen Botere Judizial baterantz* da Arrutik Ikergazte kongresuan aurkeztutako komunikazioaren izenburua –hor jorratu ditu bere tesiaren ardatz garrantzitsuenak–, eta hain zuzen ere, horri buruz galdetuta, kontatu du eungo zuzenbidearen izaera "androzentrikoa" dela. Azpimarratu du sistema juridikoen konfigurazioa gizonezko "zuri, heterosexual, desgaitasunik gabeko eta klase ertainekoak" erreferentziatzen hartuz daudela eraikiak, eta errealitate hori argitara ateratzeaz gain, salatzen ere baliatzen ari da bere lana.

"IKERTZAILEOK JASATEN DUGUN ITOLARRIARI AURRE EGITEKO ARNAGUNE BAT DA IKERGAZTE"

Hala, zuzenbidearen kritika feminista hiru etapetan sailkatzen du Arrutik. Lehenengoan, nabarmendu du ordenamendu juridikoak sexistak direla, hau da, arauak gizonaren zentraltasuna oinarritzen hartzeak emakumeen esperientzia eta beharrianak kontuan ez hartzea dakarrela. Bigarrenik, horiek berak maskulinoak ere badirela iritzi du, hau da, legeek emakumeak ikus eta tratatzen dituztela gizonek emakumeak

ZUZENBIDEAREN IZAERA "ANDROZENTRIKOA" DELA AZALDU DU IKERTZAILE GAZTEAK

ikus eta tratatzen dituzten bezala. Eta hirugarrenik, eta azkenik, ordenamendu juridikoek generoa dutela ere zehazten du; botere harreman asimétrikoak arau juridikoetan eta praktika judizialean islatzen direla.

Ikerketaren helburuen berri ere eman du, eta azaldu, Botere Judizialean genero zeharkakotasunaren printzipioaren integrazioa aztertzea dela. Hori hala izanik, bi alderditan bereizi du lana. Alde batetik, zuzenbide prozesalaren alderdi organikoa, eta materiala bestetik. Lehenengoari dagokionean, antolaketa judizial zein administratiboetan genero ikuspegiaren zeharkakotasuna aztertzen ari da. Bigarrenean, berriz, genero ikuspegiaren integrazioa epaile eta magistratuen jurisdikzio funtzioan ikertzen ari da; eskubide prozesal garrantzitsuenen urraketa eta epai estereotipatuak ikertuz.

Hartu beharreko neurriak

Espainiar jurisprudentziaren norabidea ere ikertzen ari da, eta, ikusi du genero ikuspegiaren ezarpena espainiar praktika judizialean ez dela normalizatu: "Ebazpen anitz aurki daitezke, zeinetan epaileek auzigaiari aplikagarriak diren arauen azterketa aseptiko eta neutrala egiten duten, emakumeen egiturazko diskriminazioa mantentzen duten rolak eta estereotipoak erreproduzitzen".

Eta horren aurrean, hartu beharreko zenbait neurri ere proposatu ditu egindako orain arteko lanketan. Bi hain zuzen ere: batetik, epaile, magistratu eta langile juridiko guztiek nazioarteko zuzenbide antidiskriminatzailaren gainean, formakuntza eta prestakuntza jarraitua jasotzea ezinbestekoa dela ikusten du Arrutik; bestetik, genero ikuspegia ezartzea beharrezkoa den kasuetan, delituen instrukzioan zein epaitzan jardute gida edo protokolo bat ezartzea jurisdikzio ordena guztietan, beste herri batzuetan, Mexiko kasu, ezarritakoak aintzat hartuz. Jakinarazi du, gainera, aipatu hiri horretara joango dela laster, hiru hilabeteko ikerketa egonaldia egitera; gogotsu agertu da.

Eta, ezinbestean, etorkizunari begira ere jarri da. Erroka nagusia zein den zehaztu du: genero ikuspegiarekin epaitzeaz gain, interseksionalitatea integratzea.

Kirolean bezain trebeak dira hitzekin ere

Ostadar SKTren koloreak soinean eraman dituzten hamar kirolari nabarmen gonbidatu ditu kirol elkarteak, ez entrenatu edo konpetitzeko, mikrofonoa hartu eta euren bizipenak kontatzeko baizik. Klubak bere 40. urteurrena ospatzeko egin duen hitzaldietako bat izan da

Iñigo Gonzalez Sarobe

Alex Saleta errugbi jokalaria uste du edozein kirol modalitatetan aritzen direnek egin behar dutela hirugarren denbora; partida amaitu, taldeetako kideak eta epailea elkartu eta indarrak hartu, lasai eta errespetuz. Kutsu hori izan zuen maiatzaren 25eko Ostadarretik igaro diren kirolari nabarmenenak hitzaldiak: hamar herritar, gazteak eta beterranoak, jardunean daudenak eta jubilatua, ahoan bilorik gabe eta giro ederrean, bakoitzak bizitakoak ikus-entzuleei kontatzen.

Iraia Iparragirre, Itxaso Garcia eta Ander Bardaji futbolariak; Alex Saleta bera eta Jon Ibisate errugbi jokalaria eta epailea, hurrenez hurren; Naroa Furundarena atleta; Aitor Manso pilotua; Asier Sagasti judoka; Axier Arteaga pilotaria; eta Ander Goenaga surfaria. Hamar kirolari eta, hamaikakoa osatzeko, mikrofonoa. Moderatzaile (edo arbitro) lanetan, Ostadarreko kide Aitor Azkonobieta. Ordu eta laurden inguruko solasaldia izan zen, gezurra badirudi ere, solasaldia arina eta atsegina izan baitzen. Partaideen meritua izan zen hori, hitzekin ere trebeak direla erakutsi zutelako.

Gogoeten saskia

Galdera-erantzun egitura izan zuen gehienbat solasaldiak. Hala ere, dinamika hori apurtze aldera, ariketa hau egitea proposatu zien moderatzaileak hizlariari: hamar gogoeta beste hainbeste papertotan, saski batean sartuta. Txapelketa baten azken faseko zozketa bat bailitzan, banan-banan atera zituzten, eta ozen irakurri. Ikustekoak izan ziren batzuen erreakzioak. Zenbat eta ataka estuagoa, orduan eta imintzio gehiago. Saletak zer esango lioke 8 urteko ni-ari? "Berarengan sinesteko, ingurukoei ez horrenbeste kasu egiteko eta, batez ere, ikasketetan



'Ostadarretik pasa diren kirolari nabarmenak' hitzaldiko partaideak. TXINTXARRI

saiatuagoa izateko". Barrez lehertu ziren hitzaldi aretora bertaratutakoak. Kirolean inoiz egin duen hanka sartze handiena aitortu behar izan zuen Goenagak: txapelketa baten aurretik taula ez zuela behar bezala prestatu, eta hogei bat minutu pasa behar izan zituela olaturik hartu ezinik. "Gozoa zegoen entrenatzailea!". Jakina da kirolariak era guztietako maniak eta sineskeriak dituztela. Zeintzuk dira Ibisaterenak? "Partidak hasi aurretik beroketa ariketa berdinak egin behar ditut beti, arropa berdina jantzita eta toki berdinean. Bestela, ez naiz ongi hasten". Gai filosofikoagoi buruz jardutea egokitu zitzaizkien Garciari eta Bardaji. Lehenengoari, emakumea eta kirolari buruz. "Ederra tokatu zait", esan zuen papertxoak irakurri eta berehala. "Gizartean gertatzen denaren isla dela uste dut: pixkanaka emakumeekiko ikuspuntua hobetzen doa, aurrera goaz". Bigarrenari, kirolak zer eman dion. "Gauza, bizipen eta lagun asko, diziplina bezalako baloreak... Askok eman diot kirolari, baina are gehiago jaso dut bueltan".

Giro ederrean jarraitu zuten solasean, ohartzeko amaitzeko ordua iritsi zen arte. Etxera joan ziren batzuk, eta hirugarren denbora egitera besteak, pintxo pote eguna zela baliatuta.

Denboraldi amaierako festa

Bihar biribilduko dituzte 40. urteurrenako ospakizunak, hilak 3, denboraldi amaierako festa eginda. Michelin pilotalekuan elkartuko dira, 11:00etan. Antolatzaileek aurreratu dute Aitor Anabitarte saskibaloi jokalaria irabaziko duela Kirolari Onena saria; Auzolan aitortza, berriz, Txema Valles kazetariari emango diote.

Bestalde, Ostadarrek jakinarazi du datorren denboraldian kirola egin nahi dutenek izena eman dezaketela hilaren 16ra arte, ostiralez. Horretarako www.ostadarskt.eus webgunean formulario bat bete beharko dute. Zalantzen bat izanez gero, kirol elkarteak Geltoki kaleko 25. zenbakian duen bulegora joan daitezke interesdunak, 17:00etatik 19:00etara, asteleheneretik ostiralera. Futbol deialdiak ere egin dituzte astegunetan, 18:00etatik 20:00etara, Michelingo futbol zelaian.

EDUKI BABESTUA



Muntteri AEK euskaltegiko kideak ikasleak jasotzeko gogoz daude. TXINTXARRI

23-24 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea ireki du AEK-k

Hilaren 28a baino lehen aurrematrikula egiten dutenek %5eko deskontua eta ordainketa malguagoa egiteko aukera izango dute hala nahi badute, bi epetan.

Muntteri AEK euskaltegiko kideak 2023-2024 ikasturtea prestatzen ari dira. Jakinarazi dute ohiko ikastaroak eskainiko dituztela urritik aurrera: aurrez aurreko taldeak, autoikaskuntza, sareko ikastaroak eta jardun biko ereduak.

Aurrematrikula webgunean egiteko aukera zabaldu dute, www.aek.eus helbidean. Hilaren 28a baino lehen aurrematrikula egiten dutenek %5eko deskontua izango dute iazko matrikularen prezioaren gainean, eta ordainketa malgutasunez egiteko aukera, bi epetan. Gainera, taldeak eratzeko orduan lehentasuna izango dutela azpimarratu dute AEK-ko arduradunek.

Esan bezala, izen ematea irekita dago eta azken eguna hilaren 28a izango da, asteazkena. Bide hauek erabil ditzakete herritarrek: www.aek.eus webgunea, Muntteri AEK euskaltegiaren Lasarte-Oriako egoitza (Geltoki kalea, 17) edo 607 62 52 33 telefono zenbakia.

Aurrematrikula egiterakoan 100 euroko lehen ordainketa bat egin beharko dute izena ematen dutenek. Kurtsoari ekin aurretik erabakitzen badute ikastaroa ez dutela egingo, AEK-k %100a itzuliko dio. Behin ikasturtea hasita, matrikula itzultzeko ohiko baldintzak aplikatuko dituzte.

aek

euskara praktikoa

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2

· **AURREZ AURRE** eta **AUTOIKASKUNTZA** bidez.

· **MINTZA-TALDEAK:**

Astean 2 egunez.

Muntteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea 17, behe, 20160 Lasarte-Oria

• 607 62 52 33 • lasarte@aec.eus • www.muntteri.blogspot.com



Herritarrek gogotik gozatu zuten Rukulak Euskararen 10. Maratoialdian eman zuen kontzertuan. TXINTXARRI

"Albuma oso ondo dago, baina zuzeneko talde bat gara gu"

OIHAN AGIRRETXE RUKULA TALDEKO BATERIA JOTZAILEA

Zabaleta hankaz gora jarriko du Rukulak hilaren 3tik 4ra arteko parranda gauean, 01:30etik aurrera. 'Traganarru' lan argitaratu berria aurkeztuko du, nola ez, entzuleen altuera beretik

Iñigo Gonzalez Sarobe

Rukula taldeko Oihan Agirretxe (Lasarte-Oria, 1994) bateria jotzailearekin elkartu da TXINTXARRI. Ez dirudi azken elkarrizketa izango denik, album bat kaleratu berritan beste baterako adina abesti sortu dituztelako dagoeneko. *Rukulitisa* desagertzetik oso urrun dago. **la behartuta nago galdera honekin hastera: zabaletar batentzat berezia izango da bere auzoan kontzertu bat ematea, ezta?**

Noski, nire auzoa da eta miresten ditut bertako festak. Iruditzen

zait udako txosna giroaren sarrera moduko bat dela eta giro polita sortzen dela. Gainera, arantzatxoa atera ahalko dugu, iaz jo behar genuelako baina ezin izan genuelako azkenean, taldekide batek koronabirusa hartu zuelako. Beti da berezia norberaren herri eta auzoan jotzea, presio eta ilusio puntu bat ditut. Kontuan izanda gainera gure hirugarren lana kaleratu berri dugula, *Traganarru*, are bereziagoa izango da.

Maiatzaren 11n argitaratu zenuten lan berria eta kontzertu batzuk

eman dituzue honezkerok. Zer moduz joan dira?

Oso esperientzia polita izan da, primeran tratatu gaituzte eta asko gozatu dugu, barre ederrak egin ditugu. Ziburun, Madrilen, Arrasaten eta Usurbilen izan gara. Lehen emanaldiak kanpoan egitea erabaki genuen arrazoi hauengatik: taldekide berri bat dugulako, Josu Furundarena, eta talde giroa sortu nahi genuelako; ezagutzen ez dugun jendearen iritziak ere entzun nahi ditugulako; eta etxekoan

aurrean jo aurretik entrenatuta egon nahi genuelako.

Estudiotik zuzeneko alde egongo da, ezta?

Albuma oso ondo dago, baina zuzeneko talde bat gara gu. Baten batek ezagutzen ez bagaitu, kontzertu bat ikustera gonbidatzen dugu: estiloen koktelera bat gara, zuzeneko indartsu eta dantzagarri batekin.

Diskoa berria izanagatik, zuzenean jotzeko modua ere berrituko duzue ala lurrean jotzen jarraitu, entzuleen parean? Zuen elementu bereizgarri bat hori dela esango nuke.

Hori ez da aldatuko, oro har: Zabaletako kontzertua, adibidez, lurrean izango da. Hau da gure ideia: entzufe batekin funtzionatu ahal izatea, argiak modu jakin batean kokatuta. Iruditzen zait entzuleekin gertuko harreman bat sortzea ahalbidetzen digula horrek, gustatzen zaigu. Dena den, prest gaude beste era batzuetan aritzeko, tokian tokiko baldintzetara egokitzen gara. Askotan esaten dut gozamen delako oholza baten gainean musika ekipo on batekin jotzea.

Rukularen hirugarren albuma da 'Traganarru'. Zer esan nahi du hitz horrek?

Izaki mitologiko bat da, itsasoarekin eta marinelekin zerikusia duena. Zurrumbilo bat da, lasaitasuna hankaz gora jartzera datorrena. Horregatik jarri diogu izenburu hori lanari, uste dugulako gure musikak baduela horretatik.

Kontzeptu orokorretik abiatu eta abestiak sortu dituzue, ala alderantziz?

Abestiak izan ziren lehenengo. Esan dezakegu bi fasetan egin dugula albuma, pandemia sartu zelako tartean. Kantuak egin, lan batean bildu eta grabatu aurrena, eta egoerak ahalbidetu digunean zuzenean aurkeztu gero. Entseguen erritmoa igo egin dugu, lokalean ordu asko sartu, dena freskatu eta prestatzeko.

Pandemiagatik aldatu egin behar izan zenuten sortze prozesua?

Bai, garai horietan etxean geundela egin genituen abestiak, ordenagailu batekin. Horren ostean, ohiko jarduna berreskuratu dugu, lau taldekideak lokalean elkartu eta elkarrekin sortzearena. Mugikor bat jartzen dugu grabatzen eta momentuan etortzen zaiguna jotzen dugu, 15-20 minutuz, eta gero entzun egiten dugu.

Modu bat edo bestea, zein nahiago? Taldekideekin askoz nahiago dut.



Diskoaren azala. RUKULA

'Traganarru'

Garate Estudioetan grabatu dute Rukulako kideek ia ordu erdi irauten duen lana. Diskoa eta biniloa argitaratu dituzte, biak lehen aldiz.. Hauek dira abestiak:

- *Machine salto*
- *Atown-Town*
- *Tremutante*
- *Anisaki*
- *Jurassic Party*
- *Kar 02*
- *Traganarru*
- *Progydi*



Lau izanda, erraz jartzen zarete ados?

Musika subjektiboa da, eta guk egiten duguna, instrumentala, agian gehiago. Kosta egiten zaigu 'bukatu da' esatea, beti aldatu edo hobetu dezakezu zerbait.

Diskoaren ezaugarrietatik, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Abestiak konplexuagoak dira, detaile gehiago dituzte eta zailagoak dira jotzeko, teknikoki. Horrez gain, analogikoan grabatzea gustatzen zaigu, bobinan, denok elkarrekin, soinu berezi hori lortzeko. Albumean entzungo dutena zuzenean jotakoa izango da, tranparik gabe; abestiak ez dira perfektuak. Horrelakoak gara gu.

'Traganarru' izango da azken albuma?

Abestiak sortzen jarraitzen dugu lan berria orain aurkeztuta ere. Ea noiz dugun posible, baina bidea egiten jarraituko dugu. Ilusioz eta gogoz gaude, ongi pasatzen dugu eta horrela segi nahi dugu.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus atarian

Itxaronaldia apur bat dinamizatzeko

Zabaleta auzoko festak

Teresa Sorgiñaren zain dira Zabaletako bizilagunak. Gaur iritsiko da, hilak 2, eta itxaronaldi hori dibertigarriago egiteko asmoz, jarduera eta ekimen ugari egin dituzte egunotan. Haurrentzako jarduerekin hasi dira jaiak. Koloretako kamisetak serigrafiatu zituzten lehen egunean, maiatzaren 30ean; apain-apain jantziko dituzte horiek egunotan. Lan horiek amaituta, hasi zen oholtza gaineko festa. Talentu bila ekimenean parte hartu zuten hainbat lagun taldek, eta trebezia handia erakutsi dute dantzan eta kantuan. Horren ostean, eta gorputzak astintzen jarraitzeko gogoari eutsiz, *Gas-gas* abesti ezaguna dantzatu zuten, eta goxorretak ere egin zituzten; poltsikoak bete karamelu joan ziren haur eta heldu ugari etxera.

Hori guztiaren aurretik, ordea, Zabaletako I. Pala Txapelketari jokatu zuten maiatzaren 28an, auzoko frontoian. Izena eman duten bost bikoteek elkarren aurkako partida bana jokatu zuten, eta asteburu honetan jokatu den finalerako sailkatuak erabaki ziren. Eguerdian, berriz, bazkari herrikoia egin zuten, eta ondoren, Donostiako Infernua auzo okupatuaren aldeko topa, Infernuko III. Pala Txapelketako finalurrekoa eta finala jokatzeari ekin aurretik.



Serigrafiak behar bezala lehertzeko zintzilikatu egin zituzten koloretako kamisetak. TXINTXARRI



Zabaleta Auzolan elkarteko kideak, haurren egitarauari hasiera ematen. TXINTXARRI




Adi begiratu dute haurrek beraien kamisetak nola serigrafiatzen zituzten. TXINTXARRI



Trebetasun handia erakutsi dute Talentu Bila egitasmoan parte hartu dutenek. TXINTXARRI



Zabaletako I. Pala Txapelketan parte hartu duten lagunak, talde argazkian. TXINTXARRI



Eguerdian, bazkari herrikoia egin zuten pala jokalariek, eta horren ondoren, Donostiako Infernua auzo okupatuaren alde topa. TXINTXARRI



Ostadarreko jubenilek eta Asier Acuriola entrenatzailea, lortutako domina eta garaikurrarekin. OSTADAR BOLEIBOLA

Jubenilek Gipuzkoako txapela berretsi dute

Ostadar Boleibola saileko jubenilek Gipuzkoako finala jokatu dute Bera Beraren aurka. Talde urdin-beltza nagusi izan da eta 3-0 irabazi du neurketa. Asier Acuriolaren jokalariek bigarren urtez jaso dute Gipuzkoako txapelketako garaikurra

Txintzarri

Pio Baroja kiroldegian, Donostian jokatu zen boleiboleko jubenil mailako Gipuzkoako txapelketa, maiatzaren 27an. Giro ederra izan zen harmailetan, Ostadarren zein Bera Bera taldeko zaletuek ederki bultzatu zituzten euren jokalariek. Urdin-beltzek neurketa gogorra espero bazuten ere, Ostadarreko jubenilek nagusitasunez

eskuratu zuten Gipuzkoako txapelketako finala.

Kontzentrazio handiarekin egin zioten aurre Ostadarreko jubenilek aurrean zuten erronkari, Gipuzkoako txapelketa berrestea. Horregatik, Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak garaipena buruan zuela atera zen kantxara.

Joko ederra egin zuten lasarteoriatarrek eta nagusi izan ziren; puntuak kontrolpean izan

zituzten eta Donostiako taldeari aukera gutxi eman zizkioten. Ondorioz, 3-0 (25-16, 25-12 eta 25,15) gailendu zen Ostadarreko taldea.

Urteko lana

Gipuzkoako txapelketako garaikurra jasota, denboraldi paregabea amaiara eman dio Acuriolaren taldeak; partida bakarra galdu dute jubenilek urte osoan zehar.

Eguzkiko infantilek Gipuzkoako txapelketa ere eskuratu dute

Lasarte-Oriako taldeak Antiguoko 5-1 garaitu du. Espainiako txapelketako lehen fasea jokatu du hilaren 2tik 4ra, Toledon

Txintzarri

Eguzki AF eta Antiguoko Clinica Dental Goyeneche infantil taldeek Gipuzkoako txapelketako finala jokatu zuten maiatzaren 27an, Bidebieta kiroldegian, Donostian. Partida lasaia izan zen eta Lasarte-Oriako taldeko infantilek nagusi izan ziren neurketa osoan.

Intentsitatez jokatu ziren Gorka Redondoren jokalariek eta defentsan eta batez ere, erasoan ederki jardun ziren; "konbinazio

asko egin dituzte eta ongi joan da". Ordainetan bost gol lortu zituzten -Danel Rios 2, Beñat Murillo 2 eta Axular Jimenez 1-; Antiguok ezin izan zuen ezer egin eta azken minutura arte ez zuen gola egiterik izan.

Garaikurra lortu ostean, jokalariek eta gurasoak Saustatxo elkartean bazkaldu zuten ospatzeko. Taldeak elkarteari eskerrak eman nahi dizkio euren lanarengatik.

Espainiako txapelketa

Gaur, hilaren 2an, berriz, Toledon da infantil taldea. Espainiako txapelketako multzoko lehia hasiko du CD Xota talde nafarraren aurka.

Bihar, hilaren 3an, Equipe Sport Zaragozaren aurka neurtuko ditu indarrak eta etzi, hilaren 4an, Moprisala Toledo izango du aurkari.

Multzoko lehen geratzen den taldeak txapelketako azken fasea jokatu du hilaren 17-18an, zehaztu gabe dagoen kokalekuan.

Eguzki ilusioz beteta joan da lehiaketara. Taldeko prestatzaileak azken faserako sailkapena lortzea zail ikusten duen arren, euren onena emango dutela aurreratu du: "Ez ditugu

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

KADETE 1. MAILA, KOPA, KANPORAKETAK

Ostadar SKT B - Urki CD B

Igandea, 11:00. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

INF. ESPAINIAKO TXAPELKETA

Eguzki AF - CD Xota

Ostirala, 15:30. Javier Lozano pab., Toledon.

Eguzki AF - Equipe Sport Zaragoza

Larunbata, 10:00. Javier Lozano pab., Toledon.

Moprisala Toledo - Eguzki AF

Igandea, 12:45. Javier Lozano pab., Toledon.

IGERIKETA

GIPUZKOAKO OPEN SARIA

Buruntzaldea IKTKo absolutu, junior eta infantil mailako zazpi igerilarik Gipuzkoako Open saria lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Paco Yoldi kiroldegia, Donostian.

GIPUZKOAKO UDAKO SARIA

Buruntzaldea IKTKo absolutu, junior eta infantil mailako gainerako igerilariek Gipuzkoako Uda saria parte hartuko dute.

Larunbata, 15:30. Allurralde kir., Andoainen.

GIMNASTIKA

EUSKADIKO TXAPELKETA

LOKEko amateur mailako kadete gimnastek Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata, 10:00. Landako kiroldegia, Durango, Bizkaian.

PILOTA

JUB. 2. MAILA, LAU ETA ERDIA

Intza (Diaz de Gereñu) - Oiarpe (Lasa)

Larunbata, 12:30. Loidibarren pilotalekuan.

SAN PEDROETAKO TXAPELKETA

Esku pilotako Sanpedroetako txapelketako jardunaldia izango da.

Larunbata eta igandea, 10:30. Loidibarren pilotalekuan.

ZABALETAKO PALA TXAPELKETA

Zabaletako I. Pala txapelketako finala jokatu dute.

Larunbata, 17:30. Zabaletako pilotalekuan.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

20, 18 eta 16 urte azpiko zein master mailako Ostadar SKTKo eta herriko atletek Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia lehiatuko dute.

Larunbata, 15:30. Kote Olaizola estadioan, Donostian.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko bigarren jardunaldia lehiatuko da.

Asteazkena, 12:15. Hipodromoa, Donostian.

ARRAUNA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Lasarte-Oriako arraunlariak dituzten ontziak Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.

Igandea, 10:30. Zarautzen.

ERRUGBIA

IZAR BELTZAK OROIMENEZKOA

Beltzak taldeko kideek denboraldiari amaiera emango diote:

- 09:00, Errugbi eskolari amaiera.
- 15:45, Hildako betanoei omenaldia, Aitor Uranga eta Jorge Pérez, Gotxo.
- 16:00, neurketa: Beltzak RT - Atletico San Sebastian

Larunbata. Egun osoa. Michelin kirol gunean.

KIROLAK

OSTADAR DENBORALDI AMAIERA

Ostadar SKTKo kirolariak denboraldiari amaiera emango diote:

- 11:00, argazki erraldoia.
- 12:30, sari banaketa.
- 13:30, hirugarren denbora.

Larunbata. Goiza. Michelin kirol gunean pilotalekuan.



Eguzkiko infantilek Gipuzkoako txapelketako garaile izan dira. EGUZKI ARETO FUTBOLA

gainerako aurkariak ezagutzen; gure lehen aldia da maila horretako txapelketa batean. Lehen mailako taldeen harrobi eta Espainiako txapelketan esperientzia duten taldeen aurka

jokatuko dugu. Beraz, ez da lehia erraza izango. Gure esku dagoen guztia egingo dugu neurketak gaintzeko. Aurrera egiten badugu, beste esperientzia bat izango da".

Buruntzaldea IKTko kideek, domina uzta

Igeriketa taldeko kideak Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetako zein igeriketa egokitutako France 2023 World Series probako podiumetara igo dira. Euskadiko eta Espainiako txapelketarako gutxieneko berriak ere eskuratu dituzte gaztetxoek

Txintxarri

Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetako 40. edizioa egin zuten Ordiziako Majori igerilekuan eta bertan Buruntzaldea IKTko Oihan Matute, Iñaki Garcia, Ibon Elola, Mario Amantegi, Kimetz de la Cruz, Amaiur Iparragirre, Nora Miguelez eta Itxaso Iparragirre izan ziren Gipuzkoako selekzioarekin lehian. Sei domina eta gutxieneko lau marka eskuratu zituzten gazteek.

Iñaki Garciak lau urre jantzi zituen; bi bakarka (100 eta 200 m. bizkar proba) eta bi erreleboetan (4x100 m. libre eta 4x100 n. estiloak). Horrez gain, 100 m. bizkarreko markak Espainiako txapelketarako txartela eman zion igerilari gazteari.

Ibon Elolak 100 m. bizkar proban bigarren postua eskuratzear gain, Euskal Herriko txapelketarako marka egin zuen. Txapelketa horretarako 200 m.

libreko gutxienekoa ere eskuratu zuen.

Brontzezko domina eskuratu zuen Oihan Matutek 200 m. bular proban, baita Euskal Herriko txapelketarako gutxienekoa ere.

Horiez gain, marka pertsonalak ondu zituzten Kimetz de La Cruzek 100 m. bizkar proban eta Amaiur Iparragirrek 200 m. librean

Urrea Limogesen

Podiumera igo zen taldekide Nahia Zudaire ere, France 2023 World Series igeriketa egokitutako proban; 100 m. bular proban garaile izan zen.

Zudairek sailkapen probak gainditu eta bost final lehiatu zituen: 50 m. eta 100 m. libre, 100 m. bular proba, 100 m. tximeleta eta lau estiloetako 200 metrokoa. Bular probaz gain, podiumetik gertu izan zen 100 m. libre zein 200 m. estilo probetan, bietan laugarren izan zen.



Lehian izan diren Buruntzaldea IKTko igerilariak. BURUNTZALDEA IKT / BAT BASQUE TEAM



Gure ikasleen ahotan

“Berlinen eta Costarican izan naiz. Bidaia bakoitzean bertako enpresa-giroa eta kultura ezagutzeko aukera izaten dugu”

Iker Arruti beizamarra Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) graduko 2. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.



-Zergatik aukeratu zenuen LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) gradua ikastea? Nola izan zen momentu hori?

Egia esan, enuen batere garbi zer ikasi nahi nuen; aukera asko bait nuen gustuko: Magisteritza, ADE, IVEF, LEINN... Enpresa mundua gustatzen zitzaidan, eta hor barruan aukeretako bat LEINN zen. Azkenean, LEINN egitea erabaki nuen, gehien bat, gauza oso desberdinak egiteko aukera ematen dizulako eta egiten den guztia oso praktikoa delako.

-Nola baloratzen duzu LEINNen bizitako esperientzia?

Nere esperientzia oso aberasgarria izan dela esango nuke. Askok ikasi dut eta esperientzia izugarriak bizi izan ditut.

-Lehen egunetik enpresa bat sortzen duzue LEINN graduan, nola egiten da hori?

LEINNen lehenengo egunetan 14 pertsona ezezagunekin jartzen zaituzte eta elkarrekin enpresa bat sortzeko esaten dizute. Mudle-en dugun teoriak ondo azaltzen du zer trami-te eman behar diren eta gainera aholkularien laguntza ere badugu. Tramitea beste edozein enpresaren berdina da, enpresa mota bakoitzak duen berezitasunekin.

-Ze proiektu mota garatu izan dituzue zuen enpresa edo ekipoarekin?

Gauza oso desberdinak jorrazteko aukera izaten dugu, web orrien garapenerako agentzia bat sortu genuen eta tresna eta metodologia berrien inguruko

formakuntzak ere ematen ditugu enpresen berrikuntza bultzatzeko.

-Zer iruditzen zaizkizu atzerriko esperientziak? Zein izan duzu aukera bizitzeko?

Oso aberasgarriak izan dira guztiak. Ni Berlinen eta Costarican izan naiz. Bidaia bakoitzean bertako enpresa-giroa eta kultura ezagutzeko aukera izaten dugu. Gainera, bidaia hauek guk geuk finantzatzen ditugunez, nahi eta nahi ez proiektuetan topera lan egin beharra daukagu.

-Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Ez dut batere garbi zer egingo dudan, orain bezala disfrutatzen dudan zerbaitetan egingo dut lan.



ISAAC FARRE RICO

Uda usaina, Hipodromoan

Donostiako Hipodromoak Udako 107. denboraldiko lehen lasterketak hartu zituen maiatzaren 31n. Zaldien zaletuek bost sariz gozatu ahal izan zuten: HH Sheikh Fatima Bint Mubarak Cup saria, Suances saria, Chacal saria, Persian Ruler saria eta Príncipe Duero saria. Hamalau jardunaldikoa izango da irailean amaituko den sasoa.

Herriko atletek zortzi domina jantzi dituzte

Herriko atletek bi hitzordu izan dituzte maiatzeko azken asteburuan. Gaztetxoak Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan lehiatu dira; absolutu mailako kirolariek Gipuzkoako txapelketari egin diote aurre. Bietan podiumean izan dira


Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak aireko denboraldiko txapelketa garrantzitsuak jokatzeko ari dira azken asteetan.

Ostadar Atletismo eskolako gaztetxoek denboraldia amaituko dute aurki eta taldeko lau kide Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak izan dira berriki Zumarragako Argixao kirol gunean; Xabier Martin, Kevin Pinza, Iugatz Almagro eta Eider Redondo atletek Gipuzkoako Selektzioarekin parte hartu dute.

Ederki jardun dira talde urdin-beltzeko kideak eta lautik hiruk domina jantzi dute bakarkako probetan, guztiek zilarrezkoa: Redondok luzera jauzian (4,94 m.), Pinzak pisu jaurtiketan (9,55 m.) eta Almagrok 150 m. lasterketan (19,81 s.).

Martin altuera probako zortziko finalerako sailkatu eta seigarren amaitu (1,45 m.) du, laugarren eta bosgarren sailkatuekin berdinduta.



Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan parte hartu duten atletak. OSTADAR ATLETISMOA

Bestalde, 4x80 m. proban garaile izan ziren Redondo eta Almagro lurraldeko selektzioarekin.

Absolutuek, bost domina

Donostiako Kote Olaizola estadioan absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu dute. Ostadarreko hamabi bat kirolarik parte hartu dute lehiaketa horretan; hiruk podiumean egotea lortu dute.

Naroa Furundarenak zilarrezko domina eskuratu du luzera jauzian (5,99 m.).

Oihana Igarritzek bi domina jantzi ditu jaurtiketa probetan: zilarra diskoan (31,36 m.) eta brontzezkoa xabalinan (27,49 m.).

Oinatz Almagrok ere hirugarren postua eskuratu du jauzi hirukoitzean (12,46 m.).

Horiez gain, Aiala Ramos (33,08 m.) eta Helene Martin (30,30 m.) kideek xabalina jaurtiketa proban euren markak ondu dituzte.

Bestalde, Atletico San Sebastianen lehiatzen duen Nerea Eugi herritarrek zilarrezkoa lortu du 4x100 m. lasterketan.



TXINTXARRI

Kadeteak, Kopako finalerdietan

Ostadar SKTko Kadete I. Mailako B taldeak kopako kanporaketetan aurrera egin du. Neurketan nagusi izan da eta Ordizia B 3-0 gaitzitu zdu; hilaren 4an, igandearekin, 11:00etan, final erdijokatuko dute urdin-beltzek Urki CD Bren aurka, Michelin kirol gunean.

Bestalde, Ostadar SKT 2023-24 denboraldirako talde batzuk osatzeko asmoz, hainbat deialdi egingo ditu Michelin kirol guneko zelaietan: alebin (2012 urtea) zein infantil (2010-2011 urtea) mutilak hilaren 5ean eta 6an, 18:00etatik 20:00etara; hilaren 7an eta 8an, ordu berean, emakumezko infantilak (2010-2011 urtea) eta kadeteak (2008-2009 urtea).

Larunbatean Izar Beltzak oroimenezkoa jokatu dute

Beltzak Rugby Taldeko kideek hilaren 3an, larunbarekin, egun ederra antolatu dute.

Goizean Errugbi Eskolako denboraldi amaiera izango da: jolasak, guraso eta gazteen arteko neurketa, trofeo banaketa eta hirugarren denbora.

11:00etan, Ostadar SKTko kirolari guztiekin bat eginez talde argazkia egin eta Beteranoek prestatutako hirugarren denboraz gozatu ahalko da.

Arratsaldean, 15:45ean, zendutako Aitor Uranga eta Jorge Perez Gotxo beteranoei omenaldia egingo diete eta ostean, Beltzak RT eta Atletico San Sebastian taldeek indarrak neurtuko dituzte.

San Pedro Jaietako pilota txapelketa martxan da

Hilaren 24ra arte astebururo jardunaldia izango da Loidibarren pilotalekuan; finalak 30ean jokatuko dituzte

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteak auten ere haurrei zuzendutako bakarkako San Pedro Jaietako esku pilota txapelketa antolatu du. Maiatzaren 27an eta 28an lehen jardunaldia jokatu zuten Loidibarren pilotalekuan.

Hiru maila ezberdinetako (benjamin, alebin eta infantil) lehiatzeko ahal izan zuten bi egunetan pilotalekura gerturatu ziren zaletuek.

Pilotariek hilaren 24ra arte multzoetako partidei aurre egingo diete; larunbatetan zein igandeetan izango dira norgehiagokak. San Pedro Jaietan, hilaren 30ean, finalak jokatuko dituzte.

Federatuak ere lehiatzen

Bestalde, alebin nesken Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldiko partida jokatu zuen Itxaso Iparragirrek maiatzaren 25ean, ostegunarekin.

Ziotzako Arrutiren aurka jokatu zuen herriko pilotari gazteak. Iparragirrek lan ederra egin zuen. Alabaina, banako berdinketarekin amaitu zuten (8-5 eta 5-8). Hori hausteko azken joko bati aurre egin behar izan zioten pilotariek eta detaile txikiek erabaki zuten



San Pedro txapelketako lehen neurketak jokatu dituzte. TXINTXARRI

irabazlea; Ziotzako jokalariek 4-1 garaitu zuten.

Era horretara, herriko pilotariak bere multzoko laugarren amaitu du eta ez du txapelketan aurrera egingo.

Jubenil mailako pilotariek, aldiz, lau eta erdiko txapelketako azken fasea hasiko dute hilaren 3an. Haritza Diaz De Guereñuk lehen fasean bere multzoko bigarren izateagatik final zortzirenei egin beharko die aurre. Peru Urdanpilletak, aldiz, lehenengo sailkatzeagatik atsedean izango du eta hilaren 10ko asteburuan final laurdena jokatu du. Beñat Olazabalek ere azken data horretan hasiko du Ekialdeko txapelketa.



TXINTXARRI

Kirolaz eta jokoez gozatzeko

2022-2023 ikasturtean Eskola Kirola egitasmoan parte hartu duten gaztetxoek azken festaz gozatu zuten maiatzaren 27an Michelin Kirol gunean. Adinaren arabera, jolasak edo futbola, pilota zein eskubaloia egin zituzten eta goiz ederra igaro zuten. Ikasturte honetako jarduerak amaitu den arren, hurrengo prestatzen hasi dira dagoeneko Ttakun Kultur Elkarte eta Landaberri zein Sasoeta-Zumuburu ikastetxe guraso elkarteak. Landaberrik dagoeneko izen emate epea ireki du eta Sasoeta-Zumaburuk hilaren 5ean hasiko du. Guraso elkarteek esteka bat bidaliko diete gurasoei eta horren bitartez egingo dituzte inskripzioak hilaren 16ra arte.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaile ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.


Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.


Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 2



Larunbata, 3




Igandea, 4




Astelehena, 5




Asteartea, 6



Asteazkena, 7



Osteguna, 8



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 2	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 3	GANDARIAS-URIBE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 4	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 5	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 6	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 7	GANDARIAS-URIBE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 8	DE ORUE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

SUDOKUA

	8	3					4	
				4	3	7	8	5
	4	5	8					
			4		1	6		3
				3		4	2	
4	3			9				
3			9		6		7	
			3		5	1		
8	9				4			

Sudoku10.net

OHARRA

Soka dantza prestatzeko saioak

Erketz dantza taldeak gogorarazten du ekainaren 23ko San Joan bezperako sokadantza prestatzen ari dela, Garaikoetxea-Landaberri ikastetxetan.

Asteartero egingo ditu entseguak, 19:00etatik aurrera. Ekitaldi horretan parte hartu nahi duen edonor joan daiteke saioetara.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.

Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINAZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112



XXXI. BATZAR NAGUSIAREN BILKURA

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideoi XXXI. Batzar Nagusiaren bilkurara gonbidatu nahi zaituztegu:

Eguna: 2023ko ekainaren 15ean, osteguna.

Ordua: 18:00etan lehen deialdia eta beharrezko bazkideen herena bilduko ez balitz, 18:30ean bigarren deialdia.

Lekua: Ttakunenea.

Bazkideok, bertan, elkartearen berri izateko eta elkar ikusteko aukera izango dugu. Bukatzeko otordutxo bat ere izango dugu.

XXXI. Batzar Nagusiko gai zerrenda honakoa izango da:

1. Lehendakariaren agurra
2. 2022an egindakoaren balorazioa
3. 2022ko diru-kontuen azalpena
4. Zuzendaritzako kideak
5. 2023rako egitasmoak
6. 2023ko aurrekontua
7. Ttakuneneako balorazio eta egitasmoak
8. Eskaerak eta galderak
9. Otordutxoak

Bazkideren batek gairen bat proposatu nahi badu, ekainaren 8a izango da horretarako azken eguna. Proposamena idatziz aurkeztu beharko du ttakun@ttakun.eus helbidera bidaliaz edo ttakunera ekarriaz.

Eskertuko dugu batzarrerako asistentzia konfirmatzea ttakun@ttakun.eus helbidera idatziaz edo bulegora deituz.

Ttakun Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordea

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ERRENTAN EMAN
Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabiltza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663 93 51 76 (Irati)

LANA
ESKAINITZA
Jalgi Kafe Antzokiak zerbitzaria behar du, astean 20 orduz lan egiteko eta, ahal dela, berehala hasteko. Harremanetarako zenbakia, 696 55 29 25.

Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu, lanaldi erdiz. Harremanetarako zenbakia, 695 78 32 02.
Game Master bila gabiltza. Euskaraz jakitea, asteburuetan lan egiteko prestatutasuna eta Lasarte-Oriakoa izatea baloratuko ditugu. Bidali CV info@quantum.eus-era

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644116122

ESKARIA
Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egiteko nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egiteko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.
Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egiteko nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egiteko nituzke.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.
Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketeta...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.
Lan bila nabil interna, orduka edo asteburuetan. Adineko pertsonak zaintzen eskarmentu handia dut.

Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.
Interna gisa egiteko nuke lan, astelehenetik igandera. Esperientzia dut, eta pertsona helduak zaintzeko Eusko Jaurilaritzaren ikastaroaren ziurtagiria ere bai. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona helduak zein haurrak zainduko nituzke, edota garbiketeta lanak egin. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41
Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gauz). Erietxeetan ere zaintza lanak egiteko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

SALEROSKETA
SALDU
Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramaten da. Harremanetarako zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK
HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest, goizez nahiz arratsalde. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatazaileak
Egoitz Epelde, Iñigo Garcia, Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Sergio Hernandez, Ander Hazas, Endika Merchan eta Gorka Morales.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Zabaletako Jaiak. Teresa Sorgiña Zabaleta auzora iritsi eta jaiak eztanda egingo du. Jardueraz betetako asteburua dute aurretik. Jokoak, kirola, lehiaketa, dantza, musika... izango da Zabaleta auzoko jaietan. Haur, gazte eta helduentzako ekimenez gozatu ahalko dute bertaraten diren herritarrek.

Asteburu osoa, Zabaletako pilotaleku atzeko eremua.

OSTIRALA 2

18:00etan, txokolatada.
18:45ean, kalejira Teresa Sorgiñarekin, Basobxo plazatik abiatuta.
19:00etan, Teresa Sorgiñari ongietorria Zabaleta frontoian. Jaietako pregoia, Jalguneren dantza, Sorgin Dantza herrikoa
19:30ean, *Gas-gas*, goxoraketak eta buruhandiak.
21:00etan, Afari auzotarra (norberak berea eramanda)
23:00etan, Euskal dantza sorkuntza Kukukaren eskutik.
00:00etan, Nakar taldearen kontzertua.
01:30ean, Bide batez musika taldea

LARUNBATA 3

09:00etan, diana.
10:00etan, herri kirolak

haurrentzat.
11:00etan, Xumela korua.
11:30ean, Joxe Migel Aranzadiren oroimenez XIV Eskoba txapelketa.
13:00etatik 15:00etara, Bermut musikatua, Ankoker taldearekin.
15:30ean, Joxe Migel Aranzadiren oroimenez XIV mus txapelketa.
17:00etan, erraldoiak, buruhandiak eta dultzaineroak LOZETen eskutik.
17:30etik 20:00etara, pala txapelketako finalak. Ondoren, Elektropottotte eta Kukuka.
20:00etan, Bertso saioa. Bertsolariak: Ane Labaka, Lierni Rekondo, Aitor Mendiluze eta Iñaki Zelaia. Gai jartzailea: Zigor Iriondo.
21:00etan, *Gas-gas*, goxoraketak eta buruhandiak.
21:30etan, herri afaria.
23:30etan, Akelarre dantza.
23:50ean, Zezensuzkoa LOZETen eskutik. Ondoren, Rock festa (gau pasa):
00:00etan, Alarma morea

01:30ean, Rukula
02:30ean, Dj Fantasia

IGANDEA 4

09:00etan, diana
10:30etik 11:00etara, patata tortilla txapelketa.
11:00etan, euskal dantza Kukukaren eskutik.
12:00etan, herri kirolak: Ane Zapirain, Amair Arbelaiz, Julen Gabirondo eta Beñat Telleria
12:00etan, Oaintxe in deu txaranga.
12:00etan, erraldoi eta buruhandiak LOZETen eskutik.
13:00etan, proba misto nagusia.
14:30etan, herri bazkaria txarangak girotua.
18:00etatik 20:00etara, Andoni Ollokiegiren emanaldia.
18:30ean, toka txapelketa herrikoa.
20:30 Azken traka eta Teresa Sorgiñari agurra.

OSTIRALA 2

LASARTE-ORIA Erakusketa

Ostadar SKT kirol elkarteak 40 urte beteko ditu aurtan. Urtemuga berezi hori ospatzeko prestatu duen egitarauko jardueretako bat da *40 urtez kirola sustatzen* argazki erakusketa. Ekainaren 2ra arte egongo da zabalik. Antonio Mercero gunea, 18:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Dantza

Udal Dantza Eskolako kideek erakustaldia egingo dute. Berataratu nahi dutenek, gonbidapenak jaso behar dituzte kultur etxeko leihatilan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

LARUNBATA 3

LASARTE-ORIA Jaiak

Ostadar SKTK denboraldi amaierako festa egingo du, 11:00etatik aurrera, Michelingo frontoian. Urtero legez, Auzolan eta Kirolari Onenaren sariak banatuko ditu Ostadarrek, eta, ondoren, sail bakoitzak taldeetako jokalariei aitortza egingo die. Egitarauan badago berrikuntzarik, izan ere, 40. urteurrenaren harira talde argazki erraldoi bat aterako

dute kirolari guztiekin. Bukatzeko, jan-edana izango dute Beltzak errugbi eskolakoek antolatutako hirugarren denboran.

Michelingo pilotalekua, 11:00etan.

ASTELEHENA 5

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak 21. Antzerki eta Dantza Astea ospatuko du. Hau da gaurko iragarri duten egitaraua:

19:00etan, desfilea kalez kale, Manuel Lekuona Kultur Etxetik abiatuta.

Kultur etxetik, 19:00etan.

ASTEARTEA 6

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak 21. Antzerki eta Dantza Astea ospatuko du. Eskolako ikasleak arituko dira oholzza gainean.

10:00etan, ikastetxeetako haurrentzako antzerki emanaldiak egingo dituzte. HH5 eta LH1-2-3. mailako haurrek *Muxu magikoa* obra taularatuko dute. LH3. mailakoek, berriz, *Mimosa* obra eskainiko dute, eta LH4. mailakoek, aldiz, bi lan erakutsiko dituzte: *Kanixiuaua parkea* eta

Talentuen lehiaketa.

19:00etan, publiko zabalari zuzendutako emanaldiak izango dira; eskainiko dituzten obrak goizeko berak izango dira.

Kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan.

LASARTE-ORIA Dantza

Erketz dantza taldeak ekainaren 23ko San Joan bezperako sokadantza prestatzeko entseguak egingo ditu, astero. Ekitaldi horretan parte hartu nahi duen edonor joan daiteke saioetara. Garaikoetxea-Landaberi ikastetxea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 7

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak 21. Antzerki eta Dantza Astea ospatuko du. Eskolako ikasleak arituko dira oholzza gainean.

10:00etan, ikastetxeetako haurrentzako antzerki emanaldiak egingo dituzte. LH1-2. mailako haurrek *Ipuinak kontatuko ditugu* obra taularatuko dute. LH2. mailakoek, berriz, *Perez patruila* obra eskainiko dute, eta LH1. mailakoek, aldiz, *Nola dastatu Ilargia ipuinaren inguruan* eta LH2-

3. mailakoek, *Txin-txin* herria.

19:00etan, publiko zabalari zuzendutako emanaldiak izango dira; eskainiko dituzten obrak goizeko berak izango dira.

Kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan.

OSTEGUNA 8

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak 21. Antzerki eta Dantza Astea ospatuko du. Eskolako ikasleak arituko dira oholzza gainean.

10:00etan, ikastetxeetako haurrentzako antzerki emanaldiak egingo dituzte. LH5. mailako haurrek *Clown olinpiadak* obra taularatuko dute. LH6. mailakoek, berriz, *Eskeiprruna* antzezlanak eskainiko dute, eta LH5-6. mailakoek, aldiz, *Nire ametsa*. 19:00etan, publiko zabalari zuzendutako emanaldiak izango dira; eskainiko dituzten obrak goizeko berak izango dira.

Kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan.

LASARTE-ORIA Sorgin Dantza

Ekainaren 28ko Sorgin Dantza

prestatzeko saioa egingo dute. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberrira joango dira. Okendo plaza, 20:00etan.

OSTIRALA 9

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak 21. Antzerki eta Dantza Astea ospatuko du. Eskolako ikasleak arituko dira oholzza gainean.

10:00etan, ikastetxeetako haurrentzako antzerki emanaldiak egingo dituzte. LH5-6 eta DBH1-2-3. mailako gazteek *Txano & Gorritxu 3.0* obra taularatuko dute. LH5-6 eta DBH1-2. mailakoek, berriz, *Komun publikoa* erakutsiko dute, eta LH4-5. mailako ikasleek, berriz, *Menua*. LH3-5-6 eta DBH 1-2. mailako Sorkuntza taldeko dantzariak ere emanaldia egingo dute, 10:00etatik 13:00etara.

19:00etan, publiko zabalari zuzendutako emanaldiak izango dira; eskainiko dituzten obra eta dantza erakustaldia goizeko berak izango dira.

Kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan.

Giro alaiean amaituko dute ikasturtea

GurasoLeku egitasmoan parte hartu duten familientzat festa bat prestatu dute Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak. Hilaren 6an izango da, Jalgi kafe antzokian, 17:00etatik aurrera. Musika, dantza, talde argazkia, askaria eta sorpresatxoren bat iragarri dute

Txintxarri

GurasoLeku egitasmoak 0 eta 5 urte arteko gurasoen hizkuntza ohituretan eragin nahi du eta lan horretan elkarlanean dabilza modu batera edo bestera haurrekin eta gurasoekin harreman zuzena duten herriko eragile nagusiak: Lasarte-Oriako Udala, Ttakun Kultur Elkartea, Muntteri Euskaltegia, Landaberri eta Sasoea-Zumaburu Ikastetxeak, Andre Joakina Haurreskola, Landaberri Guraso Elkartea eta Burunzpe Guraso Elkartea.

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak sinatutako lankidetzak hitzarmeneko



Jarduera bat, Ore Ama obradorean. TTAKUN

egitasmoetako bat da GurasoLeku eta Lasarte-Oriako haurrak elebidun oso bihurtzea du helburu nagusi. Horretarako, familietan euskararen transmisioa indartuko duten jarduerak aurrera eramaten dituzte irailtik ekainera, familia tipologia desberdinetara egokitutako hiru programen bidez: GurasoTegi, GurasoLagun eta Gurasolandia.

Ezagutza eta erabilera indartu

Udalerrian errolatutako 0 eta 5 urte bitarteko haurren gurasoek Udaleko Euskara Zerbitzuaren eskutik jasotzen dute egitasmoaren berri lehendabizikoz. Segidan,

aukera desberdinen berri ematen diete eta, familien hizkuntza tipologiaren eta adierazitako interesaren arabera, ongien egokitzen zaien programan parte hartuzera animatzen dituzte.

GurasoTegi programa euskara ez dakiten edo maila nahikoa ez duten gurasoei zuzenduta dago. Taldetxoak antolatzen dituzte eta Muntteri AEK euskaltegiko irakasleak ikastetxeetara bertara joaten dira euskara ikastaroak ematera.

GurasoLagun programak, aldiz, perfil linguistiko desberdineko gurasoak biltzen ditu. Batetik, euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta ohitura dutenak, eta, bestetik, beren inguru naturalean aukerarik edo ohiturarik ez dutelako, praktikatzeko beharra dutenak. Taldetxo txikiak izaten dira eta saioak mintzapraktikan oinarritzen dira.

Hizkuntza ohituretan eragin

GurasoLekuren beste adarretako bat Gurasolandia programa da. 0 eta 2 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat, adituen hitzaldiak eta tailerrak antolatu dira ikasturtean zehar eta

hilabeteko maiztasunarekin adin tarte horretara egokitutako gaiak landu dituzte.

2 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten familien kasuan, haur eta gurasoak elkarrekin jolasean euskaraz aritzeko espazio bat bideratu dute, aisialdia abiapuntutzat hartuta.

Ildo beretik, Trukelandia programak guraso eta haurren artean euskaraz aritzeko guneak sortzen ditu eta familietako kideen artean hizkuntza ohitura berriak sortzen laguntzen du. Horretarako, talde txikiak osatzen dituzte hitz egitea erraztuko duen ezagutzaren bat partekatzeko familiek.

Amaierako festa, Jalgin

Hori guztia esanda, GurasoLekun parte hartu duten familiek kurtsoa giro alaiean bukatzeko aukera izango dute, antolatzaileek Jalgi kafe antzokian aurrera eramango duten festan. Hilaren 6an izango da, asteartearrekin, 17:00etan. Partaideek diploma bana jasoko dute aitortza eta eskertza modura. Musika, dantza, haurrentzako askaria, talde argazkia eta sorpresatxoren bat edo beste ez dira faltako.

EGUNAK
EKAINAK 8, 13, 15, 20 eta 22

ORDUA
20:00ETATIK 21:00ETARA

LEKUA
Okendo plazan (eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberriko estalkian)

SORGIN DANTZA ENTSEGUAK




**LASARTE-ORIA
SAN PEDRO JAIK**



Patxintxi sariak 2023

- Zuretzat, nor da pertsonarik goxo eta maitagarriena?

.....

- Nola jarri gaitzke berarekin harremanetan?

.....

Zure izena eta kontaktua:.....

itsatsi zure
hautagaiaren
argazkia



Patxintxi sariak 2023

65 urtetik gorako
pertsona maitagarri eta goxoenak

Bidali zure hautagaiak
ekainaren 15era arte

Ttakuneko bulegoan,
kultura@ttakun.eus-era, 695 78 53 89,
Ttakuneko sare sozialetara
labur.eus/patxintxisariak2023

Sari banaketa San Pedroetako txupinean!